

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Galdetu dute ea aukerarik dagoen pegoran hobekuntzak egiteko eta Txonta kaleko 17. zenbakian igogailua jartzeko.</p>	<p>Txonta auzoaren antolaketa berrian finkatuta geratu da kale horretako 17. eraikina. Orain dela gutxi egoera aztertzen duen txosten juridiko bat egin da, egoera aztertu eta igogailuaren instalazioaren alde agertzen dena; eraikin horretan hobekuntza-obrak ere egin daitezke.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Gaztetxean asteburuetan izaten den zaratagatik kexatu dira.</p>	<p>Salaketa zehatzak jaso izan direnean sarritan esku hartu da salaketa horiei erantzuteko. Horrelakoetan, Udaltzaingoa bertara joan eta egiaztapen bat egin du egoera hori jasota uzteko.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Solac eraikina eraistea eskatu da.</p>	<p>Solac-en eraisketari zegokion obra-amaierakoan justifikatzen zenez, eraikinaren zati bat eraisteke edo botatzeke utzi zen harekin tarteko horma edo mehelina partekatzen duten eraikinetan arriskurik ez izateko, izan ere, Solaceko eraikinaren egitura eta 11. zenbakikoarena tarteko hormarekin lotuta baitaude, eta Txonta 11ko eraikinak 8 etxebizitza eta merkataritzarako etxabeak ditu. Martxoaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarrak, eraikin osoa ez botatzea justifikatu dezaketen egitura-arazoak balioetsi ondoren, agindu hau eman zuen: "Aurreko fatxadak eta aldamenekoak adreiluz edo hormigoi-blokez itxi eta kanpoko aldetik zarpiatu egin behar dira eta, horrez gain, aldamenetan kanpora ateratzen diren habeak ere moztu egin behar dira." Hori dena, behar diren bezalako segurtasun eta egokitasun baldintzak mantentzearren. Bete zen Gobernu Batzarraren agindua.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Bidegorri bat eskatu dute.</p>	<p>Aztertuko da Txonta esparruaren Garapen Planeamenduan horrelakorik sar daitekeen.</p>	<p>Hirigintza</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Kexatu egin dira kableak esekita daudelako.</p>	<p>Kableak fatxadetatik eta esekita jarri zirenean, Eibarko beste alde batzuetan bezala, sasoi hartan zegoen araudiak zioena betez egin zen. Kable horiek ordeztzen doaz pixkanaka urbanizazio berrietan eta eraikin jaso berrietan, horietan, hartune berriak lurpetik baitoaz.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Barakaldo kaleko 29tik 35era: babes ofizialeko etxebizitzak, ordaindu behar duten OHZaren zenbatekoaz kexatzen dira.</p>	<p>Katastroaren balioak Foru Aldundiak ezartzen ditu. Balorazio horien azterketa txiki bat egin da eta, ikusi denez, Eibarko BOE berriak (Ardantza, Asola Igartza...) euren artean antzeko balioa dute, baina, konparazioa eginez, aldamenekoena baino handiagoa. Hori etxeen urteen araberakoa da: BOEn kasuan, inguruan dituzten etxebizitza libreena baino txikiagoa da, eta horien balioa ez da galtzen inguruko etxebizitza libreen erritmoan, inguruko etxebizitza libre horiek, duten antzinakotasunagatik, azkarrago galtzen baitute balioa.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Txarakuan txabola bat duen hiritar batekin dauden arazoak salatu dituzte.</p>	<p>Arazoaren hirigintza-alderdiei dagokienez, hauxe: Txabolen legezkotasunari buruzko administrazio-espeditante bat tramitatu da, eta ezin da eman txabola horiek botatzeko agindurik 2006koak baino lehenagokoak direlako. Abeltzaintza-erabilera legezkoa da eta Foru Aldundiaren oniritzia du. Jabeari alde hura zuzen mantentzea eskatu zaio, bideak herri-erabilera duela azpimarratuta.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Kexak sartu dira LIDLeko zubiagatik: labana da eta arriskutsua mugikortasun urriko pertsonentzat.</p>	<p>Maila bat jarri da labainkadarik ez izateko.</p>	<p>Obrak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Bidegorria Elgoibarko oinezkoen bidearekin elkartzeko aukerarik dagoen galdetu dute.</p>	<p>Foru Aldundiak –bera baita herriarteko bide-zatietan eskumena duena- Aukeren Estudio bat egin du eta herritarren parte-hartze prozesu bat ireki du.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Barandak eskatu dituzte Karmen kaleko 6. zenbakiaren eskaileretan (Beheko Tokiko eskailerak).</p>	<p>Baranda horiek parkea eraberritzeko obrekin jarri ziren.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Saratsuegi (Sautsi): eskailera mekanikoak jartzea eskatu dute; Iparragirreko espaloia hobetzea (oinezkoak galtzada erabiltzera behartuta daude) eta autobideko zubi azpiko pasabidea hobetzea.</p>	<p>Inguru haren irisgarritasuna hobetzeko estudio baloratua enkargatu da.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Galdetu dute Karmen kaleko 4-6an umeendako jolasik jarriko den, iturria utziko den eta iluminazioa hobetuko den.</p>	<p>Obrak apirilean amaitu ziren. Iturria han utzi da eta iluminazioa hobetu da. Eraberritze-proiektuan ez zen umeendako jokorik edo jolasik sartzen.</p>	<p>Obrak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Igogailura sartzeko iluminazioa hobetzea.</p>	<p>Iluminazioa hobetu zen parkea eraberritzeko obrekin.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Eguzki-Begi: Iripide- eta iluminazio-arazoak; alde hura hobetzea eskatu dute.</p>	<p>Eskaera ETSri bidali zaio, igogailu-proiektua egiten ari da. Iluminazioa hobetu da.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Iripideak edo sarbideak Arrate bailera, eskaera eta argazkiak ekarri ditu.</p>	<p>Pasabide goratua egin da.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Txonta: Jolasgunearen aldea hobeto garbitzea eskatu da.</p>	<p>Kexa Mankomunitateari helarazita, indartu egin da jolasgunearen aldeko garbiketa.</p>	<p>Obrak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Barakaldo kaleko 29tik 35era. Etxe babestuak: sarrerako eskailerak hobetzea eta iluminazioa hobetzea.</p>	<p>Luminariak errebisatu ziren eta txarto zeudenak aldatu.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Karmen 4-6. Abiadura-murritzailerek enbarazu egiten dutela diote; horien ordezkari oinezkoen pasabide goratuak jartzea eskatu dute.</p>	<p>2014. urtean egin behar diren pasabide goratuen zerrendan sartu da. Jarduera osatuta dago.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Barrena kaleko 7tik 9ra bitarteko etxeetako auzotarrek diote enbarazu asko sortu dela trenbidea bitan banatzeko obrak egin ondoren.</p>	<p>Kexen berri ETSi eman zaio, eta horrek erantzun du ez duela uste lehentasunezkoa denik inguru hartan ezer egitea.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Udalbus zerbitzua Iparragirre eta Saratsuegi (Sautsi) kaleetan. Autobus-zerbitzuaren maiztasuna gehitzea eskatu dute, hau da: autobus gehiago jartzea.</p>	<p>Autobusen ibilbidea aldatuz gero desorekak ekarriko lituzke eskaera handiagoa duten Eibarko beste auzo edo alde batzuei eskaintzen zaien zerbitzuan.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Kexak Urkizuko dorreetan asko ugaldu direlako gazteen lokalak eta asteburuetan zaratak izaten direlako. Araudiak dioena aplikatzea eskatu dute.</p>	<p>2013. urtean lokalen eta lokal-jabeen kontaketa egin zen eta Hirigintza Sailari horri buruzko txostena bidali zizaion.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexa Udalbusak ez duelako betetzen irisgarritasun araua.</p>	<p>Araudia betetzen ez zuen autobusari -berriena- sistema hidrauliko bat jarri zaio plataforma jaitsi dezan.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Udalbusa Txonta kaletik pasatzen denean ordutegiak hobetzea eskatu dute.</p>	<p>Autobusen ibilbidea aldatuz gero desorekak ekarriko lituzke eskaera handiagoa duten Eibarko beste auzo edo alde batzuei eskaintzen zaien zerbitzuan.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexak daude Txonta kalean txakur kakak daudelako.</p>	<p>Txonta kalea zaintzen eta patruilatzen segitzen dugu. Bere sasoian, auzoan, horri buruzko informazio-kanpaina egin zen. Udaltzaingoari agindu garbi bat eman zaio: kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Kexak daude Txonta kaleko 6-8 zenbakietako plazatxoan umeak futbolean aritzen direlako.</p>	<p>Guraso batzuen eskaerari eta sinadurei erantzunez, kartel bat jarri da baloiarekin jolasteko baimena 10 urtetik beherakoei bakarrik emanez.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Barrenatik Saratsuegira (Sautsi) bitarteko bidea, 48-50 zenbakien ostea: ezinduendako eta anbulantziendako leku bana dago gordeta eta ez dira errespetatzen.</p>	<p>Udaltzaingoa salatuta egin ditu behar ez diren lekuan aparkatzen duten ibilgailuak.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Barrena kaleko 28 eta 30 zenbakietako ostea garbitzea, zehazkiago, haurtzaindegi zaharraren aldean.</p>	<p>Mankomunitateari idatzia bidali zaio kexaren berri emanez. Baieztatu dute alde hura garbitu dutela.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Argi berriak jarri ondoren, saihezbidean utzi ziren sareak erretiratzea eskatu dute.</p>	<p>2013ko abenduaren 5ean erretiratu ziren.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>28. eta 30. zenbakietako igogailuak garbitzea, ematen du garbiketa oso eskasa dela. Etxeetara doazen eskailerak eta pegoren aurretik dagoen plazatxoa garbitzea eskatu da.</p>	<p>Mankomunitateari abisua pasatu zitzaion. Esan du garbiketa hori egin duela, eskailerak eta pegoren aurretik dagoen plazatxoa ere garbitu duela. Bestalde, kexa garbiketaren ardura duen enpresari helarazi zaio, igogailuen garbiketa egiterakoan kontuan har dezan.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Argi berriak jarri ondoren, saihebidetan utzi ziren sareak erretiratzea eskatu dute.</p>	<p>Kendu dira hesiak.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Azitain—Murrategi: Kexak daude inguru hartan dagoen garbiketa-faltagatik. Espaloietatik presiozko ur-makina pasatzea eskatu dute, espaloi-ertzak garbitzea, arbolak inaustea eta laharrak kentzea.</p>	<p>Alde hura presiozko ur-makinarekin garbitu zen 2012ko irailean; hala ere, eskaera hori urezko makina garbitzailearekin garbitzeko programari erantsiko zaio. Laharrak kentzeari dagokionez, inguru hartan dauden udal lursail guztiak garbitu egin dira.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Iparragirre kaleko 5etik 11ra bitarteko zenbakien pareko horma garbitzea.</p>	<p>Ez da uste horma garbitzea beharrezkoa denik, zeharo estetikoa den gauza bat delako eta 2014. urteko aurrekontuetan hori sartzeke dagoelako.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>



**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Igogailua ez da behar adina zaintzen, gehiago edo hobeto garbitu beharko litzateke.</p>	<p>Igogailua astean birritan garbitzen da (asteartean eta ostiralean) eta nahiko garbitzen dela uste da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Igogailuaren pasadizoan izotza egiten duenean gatza botatzea eskatu dute.</p>	<p>Maila bat jarri da labainkadarik ez izateko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Iparragirre kaleko 5-11 pareko hormaren laharrak: sarriago garbitzen ahalegintzea eskatu dute.</p>	<p>Iparragirre kaleko 5-11ko hormatik kanpora ateratzen ziren laharrak kendu dira. Aipatu behar da baita lahar horiek ateratzen diren lursaila partikularra dela. Udal lantaldeak lahar horiek moztu egiten ditu arriskutsuak direnean edo hiritarrei enbarazu egiten dietenean.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Iparragirre eta Barrena kalearen arteko arbolak asko hazi direnez, arazoak daude.</p>	<p>Moztu egin dira arriskuren bat ekar zezaketen arbolak edo fatxada jotzen zutenak. Gainerako arbola guztiak inausi egin dira.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>2 mahai eskatu dituzte Azitaingo Industrialdearen parkean, DEBEGESA parean.</p>	<p>Mahaik jarri ziren.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Gisastubide 2, arkupeetan baldosak solte daude.</p>	<p>Lan-agindua eman da baldosa horiek berriro beren lekuan kolokatzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Arragueta zeharreko eskaileretan baranda jartzea eskatu dute.</p>	<p>Baranda jarri da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Barakaldo kaleko 21etik 27ra bitarteko garajeak: trenbidearen aldetik datorren euri-ura sartzen zaie.</p>	<p>Kanalizazioa urtarrilaren amaiera aldean konpondu zuen H20 enpresak. Atera enpresari deitu zaio (behean dago, eta hortik sartzen zen ura garajeetara) eta hauxe azaldu dute: azken euriteetan ez zaiela inongo urik sartu.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Urkizuko eskola: Euri-uren erretanak sarrerako eskaileretara ematen duela-eta kexa sartu dute.</p>	<p>Ez da bidezkoa patio bat delako.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Garbiketa handiagoa sarbideetan eta Eguzki Begira sartzeko tunelean.</p>	<p>Mankomunitateari abisua pasatu zaio alde hura azter dezan. Ikuskaritza egin ondoren garbia dagoela ikusi da. Alde hori astean behin garbitzen da. Hala ere, garbiketa hori sendoagotu egingo da mangerekin kamioia iristen den lekuraino.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Barrena kalea: 42-44 zenbakietarako irispideetan traba egiten duten pare bat kaxa elektriko daude, irekita egoten dira. Hori konprobatzea.</p>	<p>Lan-agindua egin da kaxa horiek konpondu eta ixteko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>TXONTA: Rocandio tailerraren inguruko argitasuna hobetzea, 3. eta 5. zenbakien pareko espaloiak beheratzea eta Solacerako sarbidea.</p>	<p>Espaloiak beheratu egin dira; hemendik denbora gutxi barru auzo osoaren iluminazioa hobetzeko lanari ekingo zaio.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Zabor-bilketako edukiontziak lekuz aldatzea.</p>	<p>Eskaera Mankomunitateari bidali zaio eta leku aldaketa hori ez du uste denik ez beharrezkoa, ez egokia.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Barrena kaleko 48-50: arkupeetan itxita dagoen aldea garbitzea eskatu dute.</p>	<p>2013ko otsailaren 15eko Gobernu Batzarraren erabakiak hauxe zioen: itxita dagoen aldea mantentzea jabeei dagokiela, izan ere, aurreko akordioa ez baitzen bete, "inolaz ere ezingo zaio erabilera pribatuk eman itxitako aldea"ri zioena, eta leku edo alde hura beteta zegoen bloke hartako bizilagunen trasteekin.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Txonta kalean, Solac-eko parkingera dagoen sarbidearen sarexka konpontzea eskatu dute.</p>	<p>Sarexka hori 2013ko azaroaren 19an konpondu zen.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Txontan, Solaceko parkinga gehiago garbitzea eskatu du eta kalea 15 egunetik behin garbitzea.</p>	<p>Mankomunitateak adierazi du alde hura egunero garbitzen dutela, astelehenetik ostiraletara. Eta mahuka edo mangera 15 egunetik 15 egunera erabiltzen dutela.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Txonta kaleko 13-15 zenbakietarako tunelean iluminazioa edo argi gehiago eskatu dute.</p>	<p>Hemendik denbora gutxi barru auzo osoaren iluminazioa hobetuko da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Txonta kaleko 13-15 zenbakietarako tuneleko eserlekua txukuntzea eskatu dute.</p>	<p>Lan-agindua egin da eserleku hori txukuntzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Barrena-Saratsuegi (Sautsi) bideko laharrak moztea eskatu dute.</p>	<p>Lan-agindua egin da Barrena-Sautsi bidean autobidearen azpian geratzen den zatia garbitzeko edo hango sastrakak kentzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Estolda-estalki batzuk labanak direla oharteman du.</p>	<p>Hiritarrek eskatutako estalkietan tira irristagaitzak ipini dira ez labaintzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

**BEHE ALDEKO AUZOKO BILERA ( Beheko Tokia Nagusien egoitza, 2013/11/14)**

<p>Udalaren webgunea gaurkotuago mantentzea eskatu dute. Auzoetako bileren aktak sarriago jartzea eskatu dute, eta baita udal osoko bilkuretako akta guztiak ere.</p>	<p>Agenda eta albisteen blokea sortzen diren premien arabera eguneratzen dira; udal akordioak (udal osoko bilkurarenak eta gobernu batzarrenak) webgunean kaleratzen dira. Auzoetako bileren prozesua errebisatzen ari gara gaur egun; horrela, auzotarrei, beraiek planteatu dituzten gaien ebazpenean eman diren pausuak adierazteko orduan, maiztasuna orain baino askoz handiagoa izango delakoan gaude. Horrez gain, webgunean atal bereziak sortu dira, proiektu esanguratsuetan sortzen diren aurrerapausoen berri emateko; baita martxan jarri diren parte-hartze prozesu guztietan hiritarren parte hartzea sustatzeko eta errazteko ere.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Hondakinen gaikako bilketaren inguruko informazio-kanpaina gehiago egitea eskatu dute; eta Mankomunitateak ere hobetu dezala hiritarrekin duen komunikazioa eta komunikabideetan presentzia handiagoa izatea.</p>	<p>Mankomunitateak asko indartu du azken urte honetan bere komunikazio- eta sentsibilizazio-lana; eta hartara, hainbat kanpaina egin ditu biohondakinen gaikako bilketarako bosgarren edukiontzia erabilerari buruz, edukiontzi horren erabilera sustatzeko xedez, ez bakarrik etxeetan, baita elkarte gastronomikoetan eta eskoletan ere.</p>	<p>Alkatetza.</p>